

## EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA 2024. URTERAKO

### CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA – INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2024

#### A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna gauzatzeko aldera.

#### B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Nafarroako Foru Diputazioa izan zela 1918an Euskaltzaindia sortu zuten erakundeetako bat, eta euskara garatzeko sortu zela Euskaltzaindia.

2. Alde biek, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak eta Euskaltzaindiak, ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmen honen zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

#### C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen honek honakoak izango ditu araubide:

1. 573/1976 Dekretua, otsailaren 26koa; dekretu horren bidez ezagutzen zaio

#### A) OBJETO:

El presente convenio tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, y regular el marco de compromisos que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución en lo que a la Comunidad Foral de Navarra concierne.

#### B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que la Diputación Foral de Navarra, fue en 1918 una de las instituciones fundadoras de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, que se creó para el desarrollo del euskera.

2. Que ambas partes, Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera y la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

#### C) NORMATIVA APLICABLE

El presente convenio se registrará por todo lo establecido en las siguientes normas:

1. El Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de

Euskaltzaindiari Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia izendapena. 272/2000 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa; dekretu horren bidez Euskaltzaindiaren Estatutuak aldatu ziren.

2. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1.2 artikuluan ezartzen da zeintzuk diren foru legearen helburu nagusiak, euskararen ezagutzari, erabilerari, berreskurapenari, garapenari, sustapenari, eta erabilerari eta irakaskuntzari dagokionez, borondatezkotasun, gradueltasun eta errespetu irizpideen arabera; Nafarroan euskarak duen errealitate soziolinguistikorekin bat. Lege berean, halaber, 1.3 artikuluan, ezartzen da euskalkiek errespetu eta babes berezia jasoko dutela Nafarroan.

3. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa, Euskaltzaindiari buruz ezartzen duenari dagokionez. Foru lege horren 3.3 artikuluan ezartzen da Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala Nafarroan, euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. Eta 8.2 artikuluan arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaietan duen zeregina.

4. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

5. 240/2023 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onesten dituena. Eta, zehazkiago, 3. artikulua, non Euskarabidearen eskumenak eta eginkizunak ezartzen baitira, eta, horien artean, honako hau: r) Euskaltzaindiarekiko akordio proposamenak prestatzea eta horien izenpetzea kudeatzea, baita akordio horien

la Lengua Vasca su denominación de Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, así como en el Real Decreto 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que establece en su artículo 1.2 sus objetivos esenciales relativos al conocimiento, uso, recuperación, desarrollo, fomento, uso y enseñanza, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto; y de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra. Ley que, igualmente, establece en su artículo 1.3 que las variedades del euskera serán objeto de especial respeto y protección en Navarra.

3. La propia Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, en lo que se refiere a la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia. En el artículo 3.3 se reconoce su carácter de institución consultiva oficial a efectos de establecimiento de normas lingüísticas del euskera en Navarra, y en el artículo 8.2 se regula la actuación de la Real Academia de la Lengua Vasca en materia de toponimia.

4. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

5. El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del Organismo Autónomo Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera. Y, más concretamente, el artículo 3, en el que se establecen las competencias y funciones, y entre las que figura la siguiente: r) Elaboración de la propuesta de acuerdos con Euskaltzaindia y gestión de su firma, además del seguimiento de las actuaciones derivadas de dichos acuerdos.

ondoriozko jarduketan jarraipena egitea ere.

#### D) HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean, eta 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izanen du; aintzat hartuko da, betiere, hitzarmen honen I letraren a) apartatuan xedatutakoa.

Diruz lagungarriak diren gastuak 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarte sortutakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

Hitzarmen honen kontra egin ahal izanen du aldeetako edozeinek, hitzarmenaren epemuga baino hiru hilabete lehenago

#### E) AURREKONTUA

2024rako aurrekontua 200.000 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2024ko Aurrekontu Orokorren "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena lan akademikoetarako, aholkularitzarako, eta euskaren sustapenerako, eta sarrera ekitaldia" izeneko B30001 B3100 4816 334100 partidaren kargura.

#### F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

Nafarroan, euskarari dagokionez, Euskaltzaindiak batzorde akademikoen eta egiturazkoen bidez eginen ditu bere lanak, hain zuzen ere.

Nafarroako Gobernuak, 2024an, jarraian ageri diren proiektuetarako eta lanetarako emanen du dirulaguntza; aurrekontuak hitzarmen honen I.1. eranskinean zehazten dira:

#### D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO.

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2024, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado a) de la letra I de este convenio.

Serán gastos subvencionados los generados y satisfechos entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2024.

El presente Convenio podrá ser impugnado por cualquiera de las partes tres meses antes de la fecha de su vencimiento.

#### E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2024 será de 200.000 euros, con cargo a la partida B30001 B3100 4816 334100 denominada "Convenio con Euskaltzaindia para labores académicas, de asesoramiento y de promoción del euskera, y acto de ingreso" de los Presupuestos Generales de Navarra de 2024.

#### F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR

La Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia desarrollará su labor a través de las distintas comisiones, académicas y estructurales, en todo lo referido al euskera en Navarra.

El Gobierno de Navarra subvencionará los siguientes proyectos y trabajos que desarrollará Euskaltzaindia durante el año 2024, de acuerdo con los presupuestos que se detallan en el anexo I.1. del presente convenio:

## I. Onomastika eta toponimia lanak egitea.

Gastuen aurrekontua: 27.256,46 euro.

I.I. Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordera edo Nafarroako Ordezkaritzara heltzen diren eskariak bideratzea eta txostenak prestatzea.

Euskaltzaindiak, urtearen amaieran, berariaz Nafarroarekin zerikusia duten txosten horietatik interes publikokoak izan daitezkeenak Euskarabideari igorriko dizkio, toponimiakoak bereziki, salbu eta, Euskarabideak berak eginiko kontsultetatik helduak izanik, Euskarabidearen esku badaudenak.

I.II. Euskaltzaindiak oikonimiari buruzko aholkularitza emanen dio Ollarango Udalari.

I.III. Euskaltzaindiak Nafarroako kontzejuen izenak arautuko ditu.

## II. Argitalpenak.

Gastuen aurrekontua: 16.720,72 euro.

II.I. *Euskaltzaindia eta Nafarroa.*  
II.II. *Blas Fagoaga Ariztia irakaslea eta euskaltzaina (Erratzu 1897-1966).*

## III. Erakusketak.

Gastuen aurrekontua: 58.365,51 euro.

III.I. "Euskara ibiltaria" (erakusketa bat).  
III.II. "Pirinioetako hizkuntzak" (bi erakusketa).  
III.III. "Euskara Ezkabarten. Paperetik ahora" (bi erakusketa).

## IV. Musika emanaldia.

Gastuen aurrekontua: 7.940,90 euro.

## I. Realización de trabajos de onomástica y toponimia.

Presupuesto de gastos: 27.256,46 euros.

I.I. Elaboración de los informes y tramitación de las solicitudes que lleguen a la Comisión de Onomástica o a la Delegación de Navarra de Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia, a finales de año, remitirá a Euskarabidea aquellos informes que, correspondiendo específicamente a Navarra, puedan ser de interés público, especialmente los de toponimia, salvo los que Euskarabidea ya disponga, por proceder de consultas realizadas por la propia Euskarabidea.

I.II. Euskaltzaindia ofrecerá asesoramiento en materia de oiconimia al Ayuntamiento del Valle de Olló.

I.III. Euskaltzaindia normalizará los nombres de los concejos de Navarra.

## II. Publicaciones.

Presupuesto de gastos: 16.720,72 euros.

II.I. *Euskaltzaindia eta Nafarroa.*  
II.II. *Blas Fagoaga Ariztia irakaslea eta euskaltzaina (Erratzu 1897-1966).*

## III. Exposiciones.

Presupuesto de gastos: 58.365,51 euros

III.I. "Euskara ibiltaria" (una exposición).  
III.II. "Las lenguas del Pirineo" (dos exposiciones).  
III.III. "Euskera en Ezkabarte. Del papel al habla" (dos exposiciones).

## IV. Actuación musical.

Presupuesto de gastos: 7.940,90 euros.

Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545. urtea) obraren gainean DANSERIE taldeak prestatutako musika emanaldia.

**V. Euskaltzaindiaren ikerketa-programetan % 25eko parte-hartzea.**

Gastuen aurrekontua: 89.716,42 euro.

% 25eko partaidetza Euskaltzaindiaren 2024ko ikerketa-programa hauetan:

- V.I. Euskaltzaindiaren Hiztegi arau-emailea.
- V.II. Orotariko Euskal Hiztegia.
- V.III. Euskal Corpus Onomastikoa.

**G ) JARRAIPEN BATZORDEA**

**Jarraipen Batzordea:**

Hitzarmen honen jarraipenerako, alde biek beharrezkoa jotzen badute, jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Euskarabidearen ordezkariak eta Euskaltzaindiaren ordezkariak.

Euskarabidearen izenean:

- Euskarabideko zuzendari-kudeatzailea edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeburua izanen da.
- Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.
- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordekidea izanen da.

Interpretación musical que de la obra de Bernat Etxepare *Linguae Vasconum Primitiae* (año 1545) ha realizado el grupo DANSERIE.

**V. Participación en un 25% en los programas de investigación de Euskaltzaindia.**

Presupuesto de gastos: 89.716,42 euros.

Participación en un 25% en los siguientes programas de investigación de Euskaltzaindia correspondientes al año 2024:

- V.I. Diccionario normativo de Euskaltzaindia.
- V.II. Diccionario General Vasco.
- V.III. Corpus Onomástico Vasco.

**G) COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

**Comisión de Seguimiento:**

En caso de que para el seguimiento de este acuerdo ambas partes lo consideren necesario, se formará una comisión de seguimiento que estará formada por representantes de Euskarabidea y representantes de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia.

Por parte de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera:

- El director-gerente de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.
- El director del Servicio de Recursos Lingüísticos, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario de la Comisión.
- La directora del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como vocal.

Por parte de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia:

Euskaltzaindiaren izenean:

- Euskaltzainburua, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Euskaltzaindiaren diruzaina, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Euskaltzaindiak Nafarroan duen ordezkaria edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.



Jarraipen Batzordearen bilkurak Hitzarmena sinatu duten erakundeen zeinahi egoitzatan egiten ahalko dira, bai eta modu telematikoan ere.



#### H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, 2024ko azaroaren 15era arte egindako gastuen ordainketa-agiriak aurkeztu ondoren.

Ordainketan, aurrerakin gisa sartuko dira 2024ko azaroaren 15etik abenduaren 31ra bitartean sortzen eta ordaintzen diren gastuak, eta 2025eko otsailaren 28a baino lehen justifikatu beharko dira. Bestela, sobera kobratutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da, gastuen kalkulu erreala oinarri hartuta gehi horrek sortutako interesak.

Ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako epean egindako gastuen benetako justifikazioaren arabera izango da, eta ordainketak ezingo du gainditu emandako urteko dirulaguntzaren zenbateko osoa.

- El presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como vocal.
- El tesorero de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como vocal.
- El delegado en Navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como vocal.

Las reuniones de la Comisión de Seguimiento podrán celebrarse en cualquiera de las sedes de los organismos firmantes del Convenio, así como de manera telemática.

#### H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN


El abono de la subvención se realizará en un único plazo, previa justificación de los gastos realizados hasta el 15 de noviembre de 2024.


En el abono se incluirán, en concepto de anticipo, los gastos que se generen y abonen entre el 15 de noviembre y el 31 de diciembre de 2024, debiendo ser justificados estos antes del 28 de febrero de 2025. En caso contrario, se iniciará un procedimiento de reintegro de la cantidad cobrada de más en base al cálculo real de gastos, más los intereses que ello hubiera generado.

El importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada en el periodo establecido, sin que el pago pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

## I) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKAZIOA

Emanen den dirulaguntza Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da, ondoren zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

  
a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da, behar diren bide administratiboak erabiliz. Dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko azaroaren 30ean bukatuko da, dagokion ordainketa egin ahal izateko. Halere, H oinarriarekin bat, 2025eko otsailaren 28rako bidali beharko da 2024ko azaroaren 15etik aurrera egindako jardueren justifikazioa.

  
b) Langile gastuak justifikatzeko, oroitidazki bat aurkeztuko da, non Euskaltzaindiko langileek proiektuari emandako orduak zerrendatuko baitira, eta horrekin batera nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak ere aurkeztuko dira.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera, fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiriak ere, atxikiko dira.

Fakturak eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean

## I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, por las oportunas vías administrativas. El plazo para la presentación de dicha documentación finalizará el 30 de noviembre 2024 para proceder al abono correspondiente. Sin embargo, de acuerdo con la base H, se deberá enviar para el 28 de febrero de 2025 la justificación de las actividades realizadas con posterioridad al 15 de noviembre de 2024

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una memoria, en la que se recogerá la relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Euskaltzaindia, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la

aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartzen dituztela. Jarduera zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako proiektuak eta lanak bukatu ondoren, 2024ko azaroaren 30a baino lehen, Euskaltzaindiak txosten partzial bat aurkeztuko du, non 2024ko azaroaren 15a arte gauzaturiko jardueri buruzko xehetasunak emanen dituen. Amaierako oroitidazkia 2025eko otsailaren 28a baino lehen aurkeztuko da.

Baldin eta gastuen azkeneko justifikazioaren zenbatekoa txikiagoa bada onartutako aurrekontuaren gutzirako zenbatekoa baino, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea bete duela, eta superabitik ez dela izan, ulertuko da onuradunak bete duela dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Dirulaguntza ematen duen organoak erabakiko du, nolnahi ere, ea gastuen justifikazioa bateragarria den deialdiaren xedea behar bezala gauzatzearekin.

Deialdi honen baitan diruz laguntzen den helburua betetzat emateko, egiaztatu beharko da proposatutako jarduerak bere osotasunean gauzatu direla; horrela izan ezean, jasoko den zenbatekoa gutxitu egingen da, gauzatzeko mailarekiko modu proportzionalan gutxitu ere.

## J) GARDENTASUNA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra

relación de gastos contemplado, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, Euskaltzaindia presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 30 de noviembre de 2024, un informe parcial correspondiente a la actividad realizada hasta el 15 de noviembre de 2024. La memoria final será presentada antes del 28 de febrero de 2025.

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, pero a pesar de ello se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, no se considerará que el beneficiario incumple con la obligación de justificación de la subvención; el órgano concedente valorará, en todo caso, si la justificación de los gastos es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Se entenderá que el objeto de subvención de la convocatoria está cumplido cuando se haya acreditado, la ejecución de la totalidad de la actividad propuesta; en caso contrario, la cantidad a percibir se minorará proporcionalmente a dicha ejecución.

## J) TRANSPARENCIA

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o



betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura. Kasu hau horrelakoa izanik, hitzarmen hau sinatu eta, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean, Euskaltzaindiak, modu telematikoan, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari, jarraian zerrendatzen den informazioa jakinaraziko dio, bere legezko ordezkariak sinatuta. Horretarako, 1.2 eranskineko ereduak erabiltzen ahalko dira.

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaketa.

b) Kargu bakoitzak gobernu, administrazio eta kudeaketa eginkizunak zer dedikazio araubidetan gauzatzen dituen.

c) Entitateak kargudun bakoitzari aurreko urtean ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuen arabera zehaztuta.

d) Onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko

subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros. Siendo este el caso, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la firma del presente convenio, Euskaltzaindia presentará, de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a la unidad administrativa que gestiona la subvención, la información que se relaciona a continuación, firmada por su representante legal, la cual podrá presentarse conforme a los modelos del anexo 1.2.

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Régimen de dedicación de cada cargo a las funciones de gobierno, administración y gestión.

c) Retribuciones brutas y demás compensaciones económicas que por parte de la entidad han percibido cada uno de los cargos el año anterior, desglosadas por conceptos.

d) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la

11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

### K) AZPIKONTRATAZIOA

Entitate onuradunek hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango dituzte diruz lagundutako jarduerak, osorik edo zati batean. Hirugarren erakundearekin hitzartutako jarduera dirulaguntzaren zenbatekoaren %20 baino handiagoa denean, eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean, azpikontratazioari dagokion kontratua idatziz egin beharko da. Era berean, azpikontratazioa dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 26. artikuluan aurreikusitako gainerako baldintzen menpe egongo da.

Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por esta de las obligaciones de transparencia previstas en el título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.

### K) SUBCONTRATACIÓN

Las entidades beneficiarias podrán subcontratar con terceros, de manera total o parcial, las actividades subvencionadas. Cuando la actividad concertada con terceras entidades exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación estará sometida a la celebración por escrito del contrato correspondiente. Asimismo, la subcontratación queda sometida al resto de requisitos previstos en el artículo 26 de la Ley Foral de Subvenciones

## L) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatu da, eta zehazki ondoko xedapenetan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, "Dirulaguntzak itzultzea", I. kapitulua, "Itzulketa", 34., 35., 36. eta 37. artikulua.
- III. titulua, "Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola", I. kapitulua, "Organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipena", 38. eta 39. artikulua, eta II. kapitulua, "Finantza-kontrola", 40. eta 41. artikulua.
- IV. titulua, "Arau-haustea eta zehapenak", I. kapitulua, "Arau-haustea", 42. artikulua, eta II. kapitulua, "Zehapen araubidea", 43., 44., 45., eta 46. artikulua.

## M) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari dirulaguntzaren onespeneraren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamen hau Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat egingen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

## L) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo establecido en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, y más concretamente en las siguientes disposiciones:

- En su título II, "Reintegro de las subvenciones", capítulo I, "Del reintegro", artículos 34, 35, 36 y 37.
- En el título III, "Seguimiento y control de las subvenciones", capítulo I, "Seguimiento por parte de los órganos gestores", artículos 38 y 39, y capítulo II, "Control financiero", artículos 40 y 41.
- En el título IV, "Infracciones y sanciones", el capítulo I, "Infracciones", artículo 42, y capítulo II, "Régimen sancionador", artículos 43, 44, 45 y 46.

## M) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN.

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

**N) DIRULAGUNTZAREN BATE-RAGARRITASUNA.**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen, laguntza bakarra izan, edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera jasotakoa izan.

MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO,  
KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO  
KONTSEILARIA /  
CONSEJERA DE MEMORIA Y  
CONVIVENCIA, ACCIÓN EXTERIOR Y  
EUSKERA




Ana Ollo Hualde

**N) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN.**

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada

EUSKALTZAINBURUA /  
EL PRESIDENTE DE LA REAL  
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA –  
EUSKALTZAINDIA



Andrés Urrutia Badiola

## I.1 eranskina

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA		
2024ko AURREKONTUA		

2024ko zereginak	GUZTIRA	%
<b>ONOMASTIKA ETA TOPONIMIA LANAK</b> - <u>Gastuen aurrekontua:</u> - GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Txostenak, lan-enkarguak, bilerak eta bidaiak gastuak	27.256,46 €   24.120,31 € 3.136,15 €	%13,6
<b>ARGITALPENAK: Euskaltzaindia eta Nafarroa liburuxka eta Blas Fagoaga Ariztia irakaslea eta euskaltzaina. Erratzu 1897-1966 liburua</b> - <u>Gastuen aurrekontua:</u> - GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak	16.720,72 €   11.852,46 € 4.868,26 €	%8,4
<b>ERAKUSKETAK</b> - <u>Gastuen aurrekontua:</u> - GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak, batzar-dietak eta bidaiak gastuak	58.365,51 €   44.243,88 € 14.121,63 €	%29,2
<b>MUSIKA EMANALDIA: Linguae Vasconum Primitiae, DANSERIE taldearen eskutik.</b> - <u>Gastuen aurrekontua:</u> - GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak	7.940,90 €   2.508,40 € 5.432,50 €	%4,0
<b>EUSKALTZAINDIAREN IKERKETA-PROGRAMETAN %25EKO PARTE-HARTZEA</b> - <u>Gastuen aurrekontua:</u> - GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak	89.716,42 €   74.458,14 € 15.258,28 €	%44,9
<b>2024ko AURREKONTUA</b>	<b>200.000,00 €</b>	

Anexo I.1

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EUSKARABIDEA Y EUSKALTZAINDIA  
PRESUPUESTO del año 2024

Proyectos del año 2024	TOTAL	%
<b>TRABAJOS DE ONOMÁSTICA Y TOPONIMIA</b> <u>Presupuesto de gastos:</u> - GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Informes, trabajos solicitados, reuniones y gastos de viaje	27.256,46 €   24.120,31 € 3.136,15 €	13,6%   -
<b>PUBLICACIONES: <i>Euskaltzaindia eta Nafarroa liburuxka y Blas Fagoaga Ariztia irakaslea eta euskaltzaina. Erratzu 1897-1966</i> liburua</b> <u>Presupuesto de gastos:</u> - GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Trabajos externos	16.720,72 €   11.852,46 € 4.868,26 €	8,4%   -
<b>EXPOSICIONES</b> <u>Presupuesto de gastos:</u> - GASTU ZUZENAK - Gastos de personal - Informes, trabajos solicitados, reuniones y gastos de viaje	58.365,51 €   44.243,88 € 14.121,63 €	29,2%   -
<b>ACTUACIÓN MUSICAL: <i>Linguae Vasconum Primitiae</i>, a cargo del grupo DANSERIE.</b> <u>Presupuesto de gastos:</u> - GASTU ZUZENAK - Gastos de personal - Trabajos externos	7.940,90 €   2.508,40 € 5.432,50 €	4,0%   -
<b>PARTICIPACIÓN EN UN 25% EN LOS PROGRAMAS DE INVESTIGACIÓN DE EUSKALTZAINDIA</b> <u>Presupuesto de gastos:</u> - GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Trabajos externos	89.716,42 €   74.458,14 € 15.258,28 €	44,9%   -
<b>PRESUPUESTO año 2024</b>	<b>200.000,00 €</b>	

## I.2 eranskina

Hitzarmenaren J) ataleko a), b) eta c) letretan aipatzen den informazioa aurkezteko ereduak.

[Gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Karguen ordainsariei buruzko adierazpena \(PDF\).](#)



## Anexo I.2

Modelos para la presentación de la información a la que se hace referencia en las letras a), b) y c) del apartado J) del convenio.

[Declaración sobre la obligación de transparencia \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la composición órganos de gobierno y dedicación \(PDF\).](#)

[Declaración sobre las retribuciones de los cargos \(PDF\).](#)

